

Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria 2018

Hautagaia:

Xabier AMURIZA

EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

HAUTAGAIA AURKEZTEKO ARRAZOIAK / AURKEZPEN ESKUTITZA

Xabier Amurizak hainbat lan egin du euskal kulturaren, horietako batzuk hauek dira:

Lehenbizi azpimarratu behar da 80 hamarkada hasieran bertsoak modernizatu zituela, ordura arte zetorren tradizio aberatsa oinarri gisa hartuz, kantatzeko eta egiteko era berriaren bertsolari adierazgarriena izan baitzen, aro berriari hasiera emanez. Harrezkero, Amurizak emandako hasierako bultzadari esker neurri handi batean, bertsolaritzak loraldi izugarria izan du.

Halaber, bertsolaritzarekin loturik, hasierako bultzada indartsuaz gain, hurrengo hamarkadetan ere lan emankorra izan du, batetik bertso-eskolak bultzatuz eta bestetik bertsolarien lana elikatzeko ekoizpen ugari eginez. Bai bertsogintzan, bai bertso-doinugintzan, bai bertso-errimatan, bai kantatzeko eran. Eduki duen eragina izugarria da, Euskal Herri osoan zehar ibili baita bere bertsoa zabaltzen.

Gainera, bertsolaritzaz gain beste genero batzuk ere landu ditu, hala idazle moduan nola abeslari gisa. Hainbat argitalpen ditu: eleberriak, azterlanak, diskak eta grabaketak.

Arrazoi zerrenda osatzeko esan behar da oraindik ere Xabier Amurizak aipatutako lanetan jarraitzen duela, 77 urte bete dituelarik, eta gutxi dela argitaratu duela bere azken nobela “Neska bat leku inposiblean”.

EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

HAUTAGAIAREN CURRICULUM VITAE

Xabier Amuriza

Biografia

1941eko maiatzaren 3an jaio zen, Zornotzan (Bizkaia). 1965ean apaiz egin zen, eta 1968tik aurrera, Francoren diktadura garaian, zazpi urte egin zituen preso, hiru espetxealditan. 1976an utzi zuen apaizgintza.

Idazle, kazetari, irakasle eta bertsolari lanetan aritu izan da eta aritzen da. Bi aldiz izan da Euskal Herriko bertsolari txapelduna: 1980 eta 1982an. 1980ko txapelketan, berritasun handia ekarri zion bertsogintzari. Haren hizkera, irudi eta metafora-mundua eta, oro har, bertsoak egituratzeko modua bereziak ziren, ordu artekoak ez bezalakoak. Neurri eta doinuetan ere berrikuntza handiak ekarri zituen: estrofa eta doinu asko sortu zituen, ordu artekoetatik oso desberdinak. Amurizarekin, bertsolaritza beste aro batean sartu zen. Bera da urte haietako bertso eskolen eragile eta irakasle nagusia ere. 90eko hamarkadan, plazarik plazako ibilia utzi, eta bestelako formatu batzuk lantzeko ahalegina egin zuen (gai-mailerik gabeko saioak bultzatu zituen).

Hainbat liburu eta disko argitaratu ditu.

Kantariantzat ere letra eta bertso asko egin ditu.

2016an, 75 urte bete zituenean, jendaurreko bertsoak kantatzeari utziko ziola iragarri zuen. Idazten jarraitzen du, ordea. Azken aldian “Neska bat leku inposiblean” nobela argitaratu du eta musikarientzako letrak idazten ari da.

Txapelketak

- Bertsolari Txapelketa Nagusia:
 - Txapelduna (2): 1980, 1982.
 - Hirugarrena (1): 1986.
 - Finalista (3): 1980, 1982, 1986.

EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

Idazlanak

Bertsolaritza

- *Laurehun herri, mila bertso berri* (1982, AEK-Elkar).
- *Harri eta irri* (1985, Elkar).

Biografia

- *Enaz banaz*, autobiografia (1999, AEK - Bertsozale Elkartea).
- *Vulkanoren atzamarrak: Rufino Arrola* (2002, Euskal Herriko Trikitixa Elkartea).

Itzulpena

- *Bai mundu berria* (1971, Kriselu-Lur). Jatorrizko testuaren egilea: Aldous Huxley.

Narrazioa

- *Agur sagar beltzaran* (2001, Bertsolari).

Eleberria

- *Hil ala bizi* (1983, Elkar).
- *Oromenderrieta* (1984, Elkar).
- *Emea* (1985, Elkar).
- *Joan ziren zikloa*:
 1. *Dinosauroak horizontean* (2007, Xabier Amuriza).
 2. *Orain ezin naiz hil* (2008, Interneten eskuragai).
 3. *Olatu bat kuartelen gainetik* (2009, Lanku).
- *Neska bat leku inposiblean* (2018, Elkar)

Poesia

- *Menditik mundura* (1977, Egilea editore).

Saiakera

- *Zu ere bertsolari* (1982, Elkar).
- *Bertsolaritzaren historia* (1996, Orain).
- *Euskara Batuaren bigarren jaiotza. Osoa, leihakorra, nazionala* (2010, Lanku)
- *Zazpi ebidentzia birjaiotzarako* (2012, Lanku)

EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

Diskografia

Xabier Amurizaren olerkiak hainbat abestiren letra izan dira:

- *Mendian gora haritza.* Imanol Larzabal, 1982
- *Euskal Herrian Euskaraz.* Oskorri, 1984
- *Furra furra.* Oskorri, 1984
- *Mende lauren bat.* Mikel Urdangarin, 2007